**Zk-874**

27/2002 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituena.

Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak –irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren bitartez aldatutakoak– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren arabera, honako egiteko eta jardun arlo hauek ditu Lehendakaritzak:

a) Jaurlaritzaren bozeramailetza

b) Gizarte eta erakunde harremanak

c) Analisi eta komunikazioa

d) Emakumea

e) Kanpo Harremanak

Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren antolamenduaren eta egitekoen esparru berria ezartzeko, hiru idazkaritza nagusitan egituratzen du Jaurlaritzaren Lehendakaritza dekretu honek: Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren jardun arloa Lehendakaritza osorako zerbitzuak koordinatzea, zuzentzea eta kudeatzea da; eta bereziki, analisi arloa eta gizarte eta erakunde harremanen arloa.

Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren jardun arloa Eusko Jaurlaritzaren informazio eta komunikazio politika ezartzea, diseinatzea eta zuzentzea da; baita ere, Jaurlaritzaren bozeramailetzaz arduratzea.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jardun arloa Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak planifikatzea, bultzatzea eta koordinatzea da.

Emakumearen jardun arloa Emakumearen Euskal Erakundea izeneko erakunde autonomoaren ardura da.

Ondorioz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8 c) artikuluak eta uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 4. artikuluak egozten dizkidaten eskumenen arabera eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko urtarrilaren 29ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

LEHENENGO KAPITULUA
LEHENDAKARITZA

*1. artikulua.–* Jardun arloak.

Jaurlaritzaren bozeramailetza, gizarte eta erakunde harremanak, analisi eta komunikazioa, emakumea eta kanpo harremanak dira Lehendakaritzaren jardun ar-

**N°-874**

DECRETO 27/2002, de 29 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno–Lehendakaritza.

El Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, modificado por Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, asignó a la Presidencia del Gobierno las relativas a:

a) Portavoz del Gobierno.

b) Relaciones Sociales e Institucionales.

c) Análisis y Comunicación.

d) Mujer.

e) Acción Exterior.

Con objeto de establecer el nuevo marco organizativo y funcional de la Presidencia del Gobierno, el presente Decreto estructura la Lehendakaritza en tres Secretarías, la Secretaría General de la Presidencia, la Secretaría General de Comunicación y la Secretaría General de Acción Exterior.

A la Secretaría General de la Presidencia le corresponde la coordinación general, dirección y gestión de los servicios comunes de Lehendakaritza y en particular las áreas de Análisis y de Relaciones Sociales e Institucionales.

A la Secretaría General de Comunicación le corresponde el establecimiento, diseño y dirección de la política informativa y de comunicación del Gobierno Vasco, así como el área de Portavoz del Gobierno.

A la Secretaría General de Acción Exterior le corresponde la planificación, el apoyo y coordinación de la acción exterior del Gobierno Vasco.

El área de actuación de Mujer corresponde al Organismo Autónomo Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

Por lo expuesto y, en virtud de las facultades que me confieren los artículos 8c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y art. 4 del Decreto 7/2001, de 16 de julio, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 29 de enero de 2002,

DISPONGO:

CAPÍTULO PRIMERO
PRESIDENCIA DEL GOBIERNO-LEHENDAKARITZA

*Artículo 1.–* Áreas de actuación.

La Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza tiene asignadas las áreas de Portavoz del Gobierno, Relaciones Sociales e Institucionales, Análisis y Comunicación,

loak, horrela finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko saila sortu, ezabatu eta aldatu eta sail horien egitekoak eta jardun arloak finkatzeari buruzko uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 4. artikuluan. Irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren bitartez aldatu zen dekretu hori.

*2. artikulua.*– Egitura.

Aurreko artikuluan adierazitako alorrei buruzko egitekoez baliatzeko, honako organo hauetan egituratzen da Lehendakaritza:

I.– Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia

a) Zerbitzu Zuzendaritza

b) Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza

c) Ekonomia Gaietarako Zuzendaritza

d) Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritza

II.– Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia

a) Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza

III.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia:

a) Kanpo Harremanenetarako Zuzendaritza

b) Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza

c) Europako Gaietarako Zuzendaritza

d) Euskadiren Ordezkaritza Bruselan

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren titularra, Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiarena eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarena goi kargu-duntzat joko dira eta, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean xedatutakoaren ondorioetarako, sailburuordeen maila izango dute.

*3. artikulua.*– Kanpo Harremanetarako ordezkaria.

Lehendakariak, kanpo harremanetarako alorrean dagozkion egitekoak burutzeko, Kanpo Harremanetarako ordezkari baten laguntza izango du. Ordezkari hori behin-behinekoa izango da eta, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean xedatutakoaren ondorioetarako, sailburuordeen maila izango du.

*4. artikulua.*– «Emakunde» erakunde autonomoa.

Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE) administrazio erakunde autonomoa Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita dago Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legean ezarritakoaren arabera.

*5. artikulua.*– Atxikipenak.

1.– Honako batzorde hauek atxikitzen zaizkio Jaurlaritzaren Lehendakaritzari:

Mujer y Acción Exterior, según lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 7/2001, de 16 de julio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, modificado por el Decreto 19/2001, de 17 de septiembre.

*Artículo 2.*– Estructura.

Para el ejercicio de las funciones relativas a las áreas señaladas en el artículo anterior, la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza se estructura en los siguientes órganos:

I.– La Secretaría General de la Presidencia

a) La Dirección de Servicios

b) La Dirección de Estudios y Régimen Jurídico

c) La Dirección de Asuntos Económicos

d) La Dirección de Relaciones Sociales e Institucionales

II.– La Secretaría General de Comunicación

a) La Dirección de Prensa y Comunicación

III.– La Secretaría General de Acción Exterior:

a) La Dirección de Relaciones Exteriores

b) La Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas

c) La Dirección de Asuntos Europeos

d) La Delegación de Euskadi en Bruselas

Las personas titulares de la Secretaría General de la Presidencia, de la Secretaría General de Acción Exterior y de la Secretaría General de Comunicación tendrán la consideración de altos cargos y, a efectos de lo dispuesto en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, el rango de Viceconsejeros o Viceconsejeras.

*Artículo 3.*– Comisionado para las Relaciones Exteriores.

Para el ejercicio de las atribuciones que corresponden al Lehendakari en materia de Acción Exterior, estará asistido por un Comisionado o Comisionada para las Relaciones Exteriores, que se proveerá con personal eventual y a los efectos previstos en la Ley 7/1981, de 30 de junio de Gobierno, tendrá el rango de Viceconsejero o Viceconsejera.

*Artículo 4.*– Organismo Autónomo «Emakunde».

Está adscrito a la Presidencia del Gobierno el Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE), a través de la Secretaría General de la Presidencia, en los términos establecidos por la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

*Artículo 5.*– Adscripciones.

1.– Quedan adscritas a Lehendakaritza las siguientes Comisiones:

– Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea (apirilaren 18ko 151/1989 Dekretua eta apirilaren 30eko 287/1991 Dekretua).

– Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea (otsailaren 2ko 13/1993 Dekretua eta uztailaren 2ko 162/1996 Dekretua).

2.– Honako hauek ere Lehendakaritzari atxikitzen zaizkio:

– Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea (apirilaren 11ko 235/1995 Dekretua).

– Euskal Etxeen Errolda (uztailaren 28ko 318/1994 Dekretua eta maiatzaren 14ko 106/1996 Dekretua).

BIGARREN KAPITULUA
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

*6. artikulua.*– Egitekoak.

1.– Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Lehenengo artikuluan ezarritakoaren arabera Lehendakaritzari dagozkion jardun arloak koordinatu, bultzatu eta gainbegiratu eta Lehendakaritza osorako diren zerbitzuen kudeaketa zuzendu.

b) Jaurlaritzaren sailekiko eta Lehendakaritzarekin zerikusirik duten erakundeekiko komunikazioa sortzeko organo lez jardun; eta hori, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzako kideek Lehendakaritzarekin duten zuzeneko harremanari eta dekretu honek Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiari eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari egozten dizkien harremanei kalterik eragin gabe.

c) Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatu, Lehendakaritzako gaiek irizpen hori behar dutenean.

d) Bere zereginetarako lehendakariak behar dituen argibide politiko eta teknikoak eskaini. Horrek ez du sailburuen egitekoak gutxitzea ekarriko.

e) Jaurlaritzaren jarduna zuzendu eta koordinatzeko laguntza eman lehendakariari. Horretaz gain aholkularitza ere eskainiko dio eskatzen dionean.

f) Irizpide nagusiak ezarri, lehendakariak gizarte eragileekin, herritarren eta erakundeekin dituen harremanen Plana egiteko.

g) Sektoreetako ekintza planei eta ekimenei buruzko informazio prozedura egokiak ezarri eta mantendu, lehendakariari gobernu lana koordinatzen laguntzeko.

– Comisión Interdepartamental de Publicidad (Decreto 151/1989, de 18 de abril y Decreto 287/1991, de 30 de abril).

– Comisión Interdepartamental de Acción Exterior (Decreto 13/1993, de 2 de febrero y Decreto 162/1996, de 2 de julio).

2.– Se adscriben, así mismo, a Lehendakaritza:

– Consejo Asesor de Relaciones con las Colectividades Vascas (Decreto 234/1995, de 11 de abril).

– Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak (Decreto 318/1994, de 28 de julio, y Decreto 106/1996, de 14 de mayo).

CAPÍTULO SEGUNDO
SECRETARIA GENERAL DE LA PRESIDENCIA

*Artículo 6.*– Funciones.

1.– Corresponde a la Secretaría General de la Presidencia, bajo la dependencia directa y jerárquica del Lehendakari:

a) La coordinación, el impulso y la supervisión de las funciones y áreas de actuación que corresponden a Lehendakaritza en virtud de lo previsto en el artículo 1, así como la dirección de la gestión de los servicios comunes.

b) Actuar como órgano de comunicación con los Departamentos del Gobierno y con los organismos que tengan relación con la Presidencia, sin perjuicio de la relación directa que con ésta mantengan los, y las miembros del Gobierno, de conformidad con lo establecido en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y de las relaciones que el presente Decreto atribuye a la Secretaría General de Comunicación y a la Secretaría General de Acción Exterior.

c) Someter a consulta de la Comisión Jurídica Asesora los asuntos de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza que deban ser objeto de dictamen.

d) Proporcionar al Lehendakari la información política y técnica que le sea precisa, para el ejercicio de sus responsabilidades, sin merma de las funciones que corresponden a las personas titulares de los Departamentos.

e) Prestar al Lehendakari el apoyo preciso para dirigir y coordinar la Acción de Gobierno, así como asesorarle en las materias que se le requieran.

f) Establecer los criterios generales para la elaboración del Plan de relaciones del Lehendakari con los agentes sociales, los ciudadanos y las ciudadanas y con las distintas Instituciones.

g) Establecer y mantener los adecuados procedimientos de información sobre los planes de actuación e iniciativas sectoriales, al objeto de facilitar la coordinación de la acción gubernamental por parte del Lehendakari.

h) Erakundeetan parte hartu behar duenean lehendakariari lagungarri izan dakiokeena eskatu Jaurlaritzako sailei.

i) Xedapen orokorrei eta akordioei buruzko proiektuak gertatu eta horien proposamenak egin lehendakariari. Lehendakaritzaren egitekoen eta jardun arloen esparruan sartzen diren zirkularrak, jarraibideak eta egintzak eman. Hala ere, izaera orokorreko arau baten bitartez zeregin hau beste organo bati eman dakioke. Lehendakaritzako dirulaguntzen deialdia ere egin beharko du.

j) Administrazio Orokorrean indarrean dagoen araubideak sailen kontratazio organoari emandako ahalmenez baliatu, kontratazio alorrean Euskadiren Bruselako Ordezkaritzaren titularrari dagozkion ahalmenei kalterik eragin gabe.

k) Lehendakaritzaren eskumenekoak diren espedienteak tramitatzeko gastuetarako baimenak eman –zenbatekoaren arabera Jaurlaritzaren Kontseiluari dagozkion gastu baimenei kalterik eragin gabe– eta aurrekontu gaietan sailburuenak diren ahalmenak erabili luze-zabalean; baita aurrekontu aldaketak egin ere.

l) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikuluak sail bakoitzari egozten dizkion eskumenak erabili eta Lehendakaritzako aldi bateko langileak izendatu.

m) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak Lehendakaritzari egozten dizkion gainerako egiteko guztiak, baldin eta beste organo bati egotzitakoak ez badira.

2.– Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren titularrak emandako ebazpenek administrazio bidea agortuko dute.

*7. artikulua.*– Zerbitzu Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) Lehendakaritzaren aurrekontuari buruzko aurreproiektua gertatu, horren jarraipena egin eta Lehendakaritzaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa gauzatu.

b) Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikitako langileak administratu eta kudeatu. Zerbitzu Zuzendaritza da zigorbide espedienteak izapidetzeko eskumena duen administrazio organoa.

c) Langileak behar diren aztertu eta Lehendakaritzako lanpostu zerrendaren proposamena gertatu.

d) Gizarte ekintzarako eta langileak prestatzeko eta trebatzeko planak eta programak gertatu, gai horretan HAEEk bereganatuta dituen aginpideei kalterik eragin gabe.

h) Recabar de los distintos departamentos del Gobierno la asistencia que precise el Lehendakari para sus intervenciones institucionales.

i) Elaborar y proponer al Lehendakari los proyectos de disposiciones generales y acuerdos, y dictar las circulares, instrucciones y actos necesarios en el ámbito de las funciones y áreas de actuación de Lehendakaritza, sin perjuicio de que una norma de carácter general lo asigne a otro órgano. Así mismo le corresponderá la convocatoria de las subvenciones de Lehendakaritza.

j) Ejercer las facultades que atribuye al órgano de contratación de los Departamentos el Régimen Orgánico vigente en la Administración General, sin perjuicio de las facultades que en materia de contratación corresponden al titular o a la titular de la Delegación de Euskadi en Bruselas.

k) Las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes competencia de Lehendakaritza, sin perjuicio de las que por razón de la cuantía correspondan al Consejo de Gobierno, así como ejercer, con carácter general, las facultades que se atribuyen a las personas titulares de los Departamentos en materia de Régimen Presupuestario, incluyendo las modificaciones presupuestarias.

l) Ejercer las competencias que el artículo 10 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, atribuye a cada Departamento, incluyendo el nombramiento del personal eventual adscrito a la Lehendakaritza.

m) Y todas aquellas funciones que el ordenamiento jurídico vigente atribuya a Lehendakaritza, y que no estén atribuidas expresamente a otro órgano.

2.– Las resoluciones dictadas por el órgano titular de la Secretaría General de la Presidencia pondrán fin a la vía administrativa.

*Artículo 7.*– Dirección de Servicios.

Corresponde a la Dirección de Servicios las siguientes funciones:

a) Elaborar el anteproyecto de presupuesto de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, y ejercer el seguimiento del mismo, así como llevar a cabo la gestión económico-administrativa de la Presidencia.

b) Administrar y gestionar el personal adscrito a la Presidencia del Gobierno, siendo el órgano administrativo competente para la tramitación de los expedientes disciplinarios.

c) Evaluar las necesidades de personal y elaborar la propuesta de relación de puestos de trabajo de la Presidencia.

d) Preparar planes y programas de acción social, formación y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de las atribuciones del Instituto Vasco de Administración Pública en esta materia.

e) Barne antolaketarako metodoak eta informazio sistemak proposatu, lan sistemak arrazionalizatu eta hobetzeko.

f) Jaurlaritzaren Lehendakaritzako bulegoen barne erregimenaz eta horien administrazioaz arduratu; baita ondarearen eta hornigaien iraupenaz ere.

g) Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako unitateen jarduna zuzendu eta antolatu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bere erakunde autonomoen Administrazio Orokorreko Prebentzioko Zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko maiatzaren 16ko 78/2000 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

h) Lehendakaritzan Administrazioa Aldatzeko eta Eguneratzeko organo eskudunak ezartzen dituen ekimenak eta arauak garatzeko eta betetzeko behar diren oinarriak bermatu.

i) Eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

*8. artikulua.–* Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzari:

a) Jaurlaritzaren jardunari buruzko txostenak egin aldiro.

b) Jaurlaritzaren Kontseiluan eta, hala badagokio, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordean aztertu behar diren gaiak prestatu eta koordinatu.

c) Legebiltzarreko agerraldiak lantzen lagundu Lehendakaritzako organoei. Lehendakaritzak Arartekoarekin nahiz beste erakunde publiko batzuekin dituen harremanak koordinatu eta bideratu, horretarako aginpidea duten organoen bitartez.

d) Lehendakaritzaren xedapen, hitzarmen eta akordioen proiektuak egin eta horietaz informatu eta Lehendakaritzaren organoei aholku juridikoak eman.

e) Lehendakaritzari interesa dakizkiokeen lege, jurisprudentzia eta doktrinei jarraipena egin.

f) Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiaren liburu eta agiriak antolatu eta kudeatu.

g) Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bitartez, azterlanak, txostenak eta ekintzak burutu, Jaurlaritzako Lehendakaritzak gizartearen egoera eta egoera horren bilakaera ezagut ditzan.

h) Eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

*9. artikulua.–* Ekonomia Gaietarako Zuzendaritza

Honako hauek dagozkio Ekonomia Gaietarako Zuzendaritzari:

e) Proponer métodos de organización interna y sistemas de información en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo.

f) Mantener el régimen interior de las dependencias de la Presidencia del Gobierno, llevar su administración y velar por la conservación de su patrimonio y equipamiento.

g) Dirigir y organizar las actuaciones de la unidad de Seguridad y Salud laboral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 78/2000, sobre organización y funcionamiento del Servicio de Prevención propio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

h) Garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar, en el ámbito de Lehendakaritza, las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de Reforma y Modernización de la Administración.

i) Y todas aquéllas que le atribuye el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 8.–* Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

Corresponde a la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico las siguientes funciones:

a) La elaboración de informes periódicos sobre las actividades del Gobierno.

b) Preparar y coordinar los asuntos cuya deliberación corresponde al Consejo de Gobierno y, en su caso, a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

c) Asistir a los órganos de la Presidencia en la elaboración de intervenciones parlamentarias, así como coordinar y canalizar, a través de los órganos competentes, las relaciones de Lehendakaritza con el o la Ararteko y otras Instituciones Públicas.

d) Elaborar e informar los proyectos de las disposiciones, convenios y acuerdos de Lehendakaritza y prestar asesoramiento jurídico a los órganos de la Presidencia.

e) Realizar el seguimiento de la legislación, jurisprudencia y doctrina de interés para Lehendakaritza.

f) La organización y gestión del fondo bibliográfico y documental de la Secretaría General de la Presidencia.

g) Realizar cuantos estudios, informes y acciones sean precisos para mantener informada a la Presidencia del Gobierno de la situación y evolución de la realidad social, a través del Gabinete de Prospección Sociológica.

h) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 9.–* Dirección de Asuntos Económicos.

Corresponde a la Dirección de Asuntos Económicos las siguientes funciones:

a) Gizarte edo ekonomiari buruz sail edota erakunde arteko planak eta programak egin eta koordinatu; beti ere, plan eta programa horiek zuzentzea eta horien jarraipena egitea Lehendakaritzari badagokio.

b) Behar beste azterlan eta txosten egin, lehendakariaren arreta behar duten arazo eta eskaera sozio ekonomikoak ezagut ditzan Lehendakaritzak.

c) Ekonomiaren epe ertain eta luzeko bilakaerari buruzko orientabideak eman lehendakariari, nazioartean eta Euskadin antzemandako joerak kontuan hartuta.

d) Ekonomia eta gizarte eragileekin informazio prozedura egokiak ezarri eta horiei eutsi euskal ekonomiaren bilakaera ezagutzeko.

e) Lehendakariari behar besteko aholkuak eman, jarduera planen eta sektore ekimenei jarraipena egin diezaion eta planok eta ekimenok gida ditzan lehendakariak.

f) Eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

*10. artikulua.–* Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek ditu Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritzak:

a) Lehendakariak gizarte eragile, herritar eta erakundeekin dituen harremanen plana gauzatu eta ebaluatu.

b) Lehendakariak ekitaldi ofizialetan parte hartzen duenean, ekitaldi horiek egoki antolatu eta burutu.

c) Lehendakaritzaren harreman publikoetarako behar diren ekintzak burutu.

d) Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuz, lehendakariak kanpora egin behar dituen bidaietarako laguntza logistikoa eman.

e) Lehendakaritzari eta Jaurlaritzako goi kargudunei protokoloaren araubidea ezarri.

f) Eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

HIRUGARREN KAPITULUA
KOMUNIKAZIORAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

*11. artikulua.–* Egitekoak.

Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Eusko Jaurlaritzaren informazio eta komunikazio politika ezarri, zehaztu eta zuzendu.

b) Eusko Jaurlaritzaren komunikatuak egin eta, hala balegokio, gainbegiratu.

a) Elaborar y coordinar de los planes y programas de naturaleza socio-económica y carácter interdepartamental y/o interinstitucional, cuya dirección y seguimiento corresponda a Lehendakaritza.

b) Realizar cuantos estudios e informes sean precisos para mantener informada a la Presidencia sobre los problemas y demandas que requieran la atención del Lehendakari en materia socio-económica.

c) Proporcionar al Lehendakari orientaciones sobre la evolución económica con una perspectiva de medio y largo plazo considerando las tendencias internacionales y las observadas en Euskadi.

d) Establecer y mantener los adecuados procedimientos de información con agentes económicos y sociales para contar con un diagnóstico actualizado de la evolución de la realidad económica vasca.

e) Prestar el asesoramiento que sea preciso para asistir al Lehendakari en el seguimiento y dirección de planes de actuación e iniciativas sectoriales.

f) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 10.–* Dirección de Relaciones Sociales e Institucionales.

Corresponde a la Dirección de Relaciones Sociales e Institucionales las siguientes funciones:

a) Proceder a la ejecución y seguimiento del plan de relaciones del Lehendakari con los agentes sociales, los ciudadanos y ciudadanas y con las distintas Instituciones.

b) Garantizar la adecuada organización y desarrollo de los actos oficiales en los que participe el Lehendakari.

c) Llevar a cabo las acciones precisas en el ámbito de las relaciones públicas de la Presidencia.

d) Prestar la cobertura logística oportuna a los viajes del Lehendakari al exterior, en coordinación con la Secretaría General de Acción Exterior.

e) La aplicación, con respecto a la Presidencia y altos cargos del Gobierno, del régimen de Protocolo.

f) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

CAPÍTULO TERCERO
SECRETARÍA GENERAL DE COMUNICACIÓN

*Artículo 11.–* Funciones.

Corresponde a la Secretaría General de Comunicación, bajo la dependencia directa y jerárquica del Lehendakari:

a) Establecer, diseñar y dirigir la política informativa y de comunicación del Gobierno.

b) Elaborar y, en su caso, supervisar los comunicados del Gobierno.

c) Bide egokiak ziurtatu Eusko Jaurlaritzaren ekintzen berri emateko, baita lehendakariaren eta Jaurlaritzaren bozeramailearen ekintzen berri emateko ere.

d) Irizpideak eta baliabideak ezarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailen eta erakunde autonomoen prentsa zerbitzuen koordinazioa bermatzeko.

e) Nazioarteko komunikabideekiko harremanak zuzendu eta koordinatu.

f) Irizpideak eta baliabideak ezarri, erakundearteko ekintzen berri ematearen koordinazioa bermatzeko.

g) Jaurlaritzak komunikabideekin dituen harremanak zuzendu.

h) Gizartea sentsibilizatzeko publizitate kanpainak eta neurriak koordinatu, baita Eusko Jaurlaritzaren eta bere sailen ekintzen berri eman ere, Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordearen eta Publizitate Zerbitzuaren bitartez. Batzorde hori apirilaren 18ko 151/1989 Dekretuak eta apirilaren 30eko 287/1991 Dekretuak arautu zuten.

i) Euskadiren irudia kanpoan zabaltzeko diren informazio eta publizitate irizpideak eta politikak ezarri.

j) Eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

*12. artikulua.–* Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza

Honako egiteko hauek dagozkio Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritzari:

a) Eusko Jaurlaritzaren komunikatuak, erreferentziak eta prentsa oharrak egin.

b) Bide egokiak ziurtatu Eusko Jaurlaritzaren ekintzen berri emateko, baita lehendakariaren eta Jaurlaritzaren bozeramailearen ekintzen berri emateko ere.

c) Gizarteko komunikabideekiko harremanak ziurtatu eta erraztu.

d) Jaurlaritzako sailen berri ematea erraztu eta sail horietako prentsa zerbitzuak koordinatu.

e) Laguntza eman publizitate kanpainak eta gizartea sentsibilizatzeko ekintzak koordinatzeko, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren ekintzak ezagutarazteko eta Euskadiren erakundeen irudia kanpoan zabaltzeko.

f) Informazio eta publizitate politikak ezarri eta burutu, Euskadiren erakundeen irudia kanpoan zabaltzeko.

g) Eusko Jaurlaritzaren «euskadi.net» web-eko informazio eta zabalkunde ekintza guztiak zuzendu eta koordinatu.

h) Euskadiko nahiz nazioarteko aktualitateak komunikabideetan duen isladaz azterlanak eta txostenak bu-

c) Garantizar la adecuada cobertura informativa de las acciones del Gobierno, incluidas las relativas al Lehendakari y el área de Portavoz del Gobierno.

d) Establecer los criterios y mecanismos necesarios que aseguren la coordinación de los servicios de prensa de los distintos Departamentos y organismos Autónomos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Dirigir y coordinar las relaciones con los medios internacionales de comunicación.

f) Establecer los criterios y mecanismos necesarios que aseguren la coordinación de la acción divulgativa e informativa que afecte a actuaciones de carácter interinstitucional.

g) Dirigir las relaciones del Gobierno con los medios de comunicación.

h) Coordinar las campañas publicitarias y medidas de sensibilización social, así como la difusión de las acciones del Gobierno Vasco y de sus Departamentos, a través de la Comisión Interdepartamental de Publicidad, regulada por los Decretos 151/1989, de 18 de abril, y 287/1991, de 30 de abril, y del Servicio de Publicidad.

i) Establecer, los criterios y las políticas informativas y de publicidad en orden a divulgar la imagen institucional de Euskadi en el exterior.

j) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 12.–* Dirección de Prensa y Comunicación

Corresponde a la Dirección de Prensa y Comunicación las siguientes funciones:

a) Elaborar comunicados, referencias y notas de prensa del Gobierno.

b) Garantizar la adecuada cobertura informativa de las acciones del Gobierno, incluidas las relativas al Lehendakari y al área de Portavoz del Gobierno.

c) Asegurar y facilitar las relaciones con los medios de comunicación social.

d) Facilitar la labor informativa y coordinar los servicios de prensa de los distintos Departamentos.

e) Colaborar en la coordinación de las campañas publicitarias y medidas de sensibilización social, así como en la difusión de las acciones del Gobierno Vasco y de la imagen institucional de Euskadi en el exterior.

f) Desarrollar y ejecutar las políticas informativas y de publicidad en orden a divulgar la imagen institucional de Euskadi en el exterior.

